

XX. IGANDEA URTEAN ZEHAR (B)

Otoitza

Ondasun miragarriak dituzu, Jauna, maite zaituztenentzat;
 biztu gure bihotzetan zeure maitasunaren garra,
 Zu gauza guztietan eta gauza guztien gainetik maite izanez,
 irits ditzagun guk asma ahala baino handiagoak diren Zuk agindutako ondasunak.
 Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Es Za 9, 1-6

*Zatozte eta jan nire ogitik;
 edan, prestatu dudan ardotik.*

Esaera Zaharren liburutik

Jakinduriak etxea eraiki du beretzat,
 eta zazpi zutabe ipini dizkio.
 Haragitakoak hil ditu,
 ardoa prestatu eta mahaia jarri du.
 Bere zerbitzariak bidali ditu,
 herri goietatik deiadar hau egitera:
 «Ikasigabeak betoz hona;
 zentzugabekoei honela esaten diet:
 Zatozte eta jan nire ogitik;
 edan, prestatu dudan ardotik.
 Utz umekeriak, eta biziko zarete;
 ibil zaitezte zentzu bidetik».

ERANTZUN SALMOA: Sal 33, 2-3. 10-11. 12-13. 14-15

**R/. Dasta ezazue eta ikus
 zein samur den Jauna.**

Bedeinka dezadan aldi oro Jauna,
 nire ahoan beti Haren gorespina.
 Gailendu bekit bihotza Jaunarekin,
 poztu bitez apalak hori entzutearekin. R/.

Izan iezaiozue beldur, santuak, Jaunari,
 ez baitzaio ezer falta beldur dionari.
 Aberatsak behartsu bihurtu eta gosetu dira,
 Jaunaren bila dabilzanak ezereen faltan ez dira. R/.

Zatozte, seme-alabok, entzun niri,
 irakatsiko dizuet beldur izaten Jaunari.
 Zer gizakik du bizia maite?
 Ondasunak gozatzeko, nork ditu egunak maite? R/.

Hezi zeure mihia gaitzetik,
ezpainak gezur hitzetik.
Egizu on dena, alde gaitzetik,
opa ezazu bakea eta zabilzkio atzetik. R/.

II. IRAKURGAIA: Ef 5, 15-20

Kontura zaitetze, Jaunak zer nahi duen.

San Paulo Apostoluak Efesiotarrei

Senideok: Begira ondo, nola zabilzaten; ez izan zentzugabe, zentzudun baizik. Ondo balia zaitetze egokieraz, egun txarrak baitatoz. Horregatik ez izan ergelak; baizik eta kontura zaitetze, Jaunak zer nahi duen.

Ez zaitetzela ardoz mozkortu, lasakeria berekin du eta; baizik eta bete zaitetze Espirituaz. Esaitzazue elkarrekin salmoak, gorazarreak eta goiarnasezko abestiak; kanta iezaiozue eta eman ospe bihotz-bihotzez Jaunari. Eman beti eskerrak guztiengatik Jaungoiko Aitari, Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

EBANJELIOA: Jn 6, 51-58

Aleluia: Jn 6, 57

R/. Aleluia.

V/. Nire haragia jaten duena eta nire odola edaten,
Niregan dago eta Ni harengan –dio Jaunak–. R/.

*Nire haragia egiazko janaria da,
eta nire odola, egiazko edaria.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik

Aldi hartan, Jesusek honela esan zion jende taldeari: «Ni naiz ogi bizia zerutik jaitsia. Ogi honetatik jaten duena betirako biziko da; eta Nik emango dudana ogia neure haragia da munduaren bizirako». Judutarrak eztabaidan ari ziren: «Nola eman diezaguke Honek jatera bere haragia?» Eta Jesusek: «Egi-egiaz diotsuet: Gizonaren Semearen haragia ez baduzue jaten eta Haren odola edaten, ez duzue bizirik zeuengan. Nire haragia jaten duenak eta nire odola edaten, badu betiko bizia, eta Nik biztuko dut hura azken egunean. Nire haragia egiazko janaria da; eta nire odola, egiazko edaria. Nire haragia jaten duena eta nire odola edaten, Niregan dago eta Ni harengan. Bizi den Aitak bidali nau, eta Ni Aitarengandik bizi naiz; era berean, Ni jaten nauena Niregandik biziko da. Hau da zerutik jaitsitako ogia; ez zuen gurasoena bezalakoa; jan eta hil egiten baitziren. Ogi honetatik jaten duena betirako biziko da».

Oparigaien gainekoa

Onar, Jauna, gure dohain hauek;
beroein bidez harreman miragarriak ditugu Zurekin; iguzu, Zuk emanak eskainiz,
Zeu izan zaitzagula sari.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengo

Jainko Jauna, sakramentu honetan Kristorekin bat eginik,
zure errukiari apalik deika gaude:
lur honetan Kristoren antzeko izanik,
zeruetan Haren lagun izatea irits dezagula.
Jesu Kristo.